



## Emakumeen prekaritatea

---

### Itziar Lopategi

*LABeko emakume arloko nazio arduraduna*

### 1. Prekaritateari buruzko gogoetak

#### 1.1. Prekaritatea sistema ekonomikoaren bitartekoa langileak esplotatzeko eta zatitzeko

Ez da berria prekaritatea sistema kapitalistaren bitartekoa, tresna, dela langileak esplotatzeko, alegia, kostu txikienaren truke errendimendurik handiena (etekinik handiena) ateratzeko. Baina, horretaz gain, prekaritateak bestelako funtzioa ere badu, izan ere, langileria-subjektua zatitzeko balio du eta beraz, langileen indarra ahultzeko. Zio bikoitz honek Kapitalaren globalizazio estrategia oinarritu eta gidatzen du. Beronen ondorioak langileriarengan, gaur egun, berebiziko larritasunez aztertzen ditugu baina, azalarazi eta nabarmendu beharra dago, emakumezko langileak gizonezko langileengandik betidanik bereziturik izan direla, hau da, bigarren mailako langiletzat hartuta, lan baldintza prekarioagoetan.

#### 1.2. Prekaritatea eta langileen eskubideen murrizketa

Prekaritatearen orokortzeak erabateko ziurtasunik eza ezartzen du lan merkatuan. Langileak nagusien eskuetan harrapaturik sentitzen dira, beren eskubideak balioztatzeke bitartekorik gabe. Izan ere, eskubideen murrizketa formalari (legedien erreformen bitartez egiten dena) eskubideen murrizketa mediatikoa (lanpostua galtzeko arriskuari lotutakoa) gehitzen zaio. Are gehiago, diru sarrera ziurtatzea premiazkoa denez, eskubideen erreibindikapena apaltzen da. Kontraesankorra bada ere, lan baldintzarik txarrenak, eta beraz, egoera larrienak jasaten dituztenek, adibidez, gazte eta emakumeek (bertokoek zein etorkinek), jarrera pasiboa eta ez mobilizatzailea agertu ohi dute oro har.

Egun, prekaritatea ezin dugu fenomeno mugatu bezala aztertu, hau da, aipatu kolektibo zehatzei soilik eragiten diena. Aitzitik, orokortzera jotzen duen fenomeno da. Prekaritatea lan merkatuaren berregituraketaren filosofia eta praktikaren oinarria da. Kapitalismo neoliberalaren globalizazioak, kapitalaren metaketari mugak jar diezazkioketen lan baldintzak ezabatzea ezinbestekotzat jotzen du. Xede horrek gune ekonomikoen, lan merkatuen eta lan baldintzen berregituraketak exijitzen ditu. Berregituraketa prozesuak, besteak beste, honako ondorio hauek ditu: pertsonengan, eskubide sozial eta laboralak murriztea, lan baldintzak sistematikoki okertzea, esplotazioa eta babes ezaren orokortzea. Herrietan, beren garapen baliabideak lapurtzea, erabaki eskubideak bahitzea eta planeta osoko natur eta bizi bitartekoak suntsitzea.

### 1.3. Eskubideen murrizketa, lan baldintzen okertzea eta lan merkatuaren desregularizatzea (berregituratzea) elkarri loturik doaz.

Langileriaren borrokari esker lortutako eskubideak eta lan baldintzen hobekuntzak kolokan jarri eta galtzen ari dira. Ildo beretik, Negoziazio Kolektiboaren balioa langileen interesak eta beharrak defendatzeko gero eta baldintzatuagoa dago langileria, hots, langileak, gero eta zatituagoak daudelako kontratazio moten, azpikontratazioaren, ABLEen eta abarren bitartez.

Hala eta guztiz ere, langileriaren behar eta interesez mintzatu ohi da, kasu guztietan, berdinak eta bakarrak balira bezala; aitzitik, gero eta nabariagoa da langile kolektiboaren behar eta interesak, jasaten dituzten lan arazoak eta lan baldintzen arabera, ez direla berdinak. Esan bezala, langileriaren osaketa anitza da. Hori dela eta, zenbait aldarrikapen komunak badira ere, horietaz gain, gero eta gehiago dira langile kolektibo desberdinei, era berezituaz eragiten dieten arazo multzoa, zeinak denon arreta eta erantzuna exijitzen dituen. Emakume langileen beharrak, berezituak (genero-sexu bazterkeriari lotuta) izanik, ez dira kontuan hartzen.

Laburbilduz, erreformaz erreforma, gero eta basatiagoa den lan merkatuan, lan baldintza duinak eskuratzeko emakumeek ez ezik, gero eta zatituagoa dagoen langileria osatzen duten zenbait kolektibok erantzun espezifikoak ezinbestekoak dituzte.

### 1.4. Prekarietatearen eragina langile kolektibo desberdinetan

Azpimarratu, hots, agerian utzi nahi dugu, sistemak ez duela berdin erabili eta erabiltzen prekarietatea langile kolektiboekin. Esan bezala, prekarietatea lan merkatuaren bilakaeraren ezaugarria da, baina, prekarizatze prozesuaren hedapenak langile kolektibo zehatzak izan ditu abiapuntu. Langile kolektiboak esaten ditugu, zeren eta behin eta berriz agertzen dugunez, langileriaren osaketa anitza dela kontutan hartzea ezinbesteko baitugu LABen. Baldin eta gure jarduera sindikala, benetan, langile guztientzako tresna eraldatzailea eta eraginkorra izatea bilatzen badugu, bederen.

Hau dela eta, guztiz hedatuta dagoen joera (baita sindikatuan ere) baztertu behar dugu:

- langileei buruz ikuspegi homogenizatzailez, eta orokortzailez mintzatzea, denak berdinduz.
- langileak kolektibo homogenoa balitz bezala aztertzea
- eta langileei buruzko datu orokor soilak plazaratzea.

Zeren eta, argi dago klase zapalketaz gain, bestelako zapalketa eragileak ere badaudela; gainera, berebiziko indarra dutenak eta langileen leku, status eta egoera lan munduan determinatzen dituztenak, besteak beste: sexu-generoa eta jaiotze-etniakoa. Hauei adinarengatiko diskriminazioa gehitu beharra dago.

Zapalketa eta diskriminazioa prekarietateari loturik doaz. Hala ere, bereziki, genero-sexu zapalketa nabarmendu nahi dugu, gainerako guztietan presente dagoelako, eragina duelako, eta bere izaera estrukturala kuestionaezina izan arren, sistematikoki entzungor egiten zaiolako.

### 1.5. Genero-sexu zapalketa eta emakume langileen egiturazko prekarietatea

Sexu-genero zapalketaren arabera ezartzen da:

-Lanaren oinarriko sexu banaketa. Hau da, merkaturatzen den lana (enplegua) gizonentzat eta merkaturatzen ez dena (etxekoa) emakumeentzat.

-Lantzat jotzen diren jarduerak gizonentzat eta lantzat jotzen ez direnak emakumeentzat.

-Ordaintzen den lan jarduera gizonentzat eta ordaintzen ez dena emakumeentzat.

-Eskubide sozialak sortarazten dituen lana gizonentzat eta eskubide sozialik ez dakarrena emakumeentzat

Errealitate hau dugu abiapuntua. Gizonezkoen lehentasuna eta emakumeen subsidiaritatea, alegia, egiturazko prekarietate espezifikoaren lan merkaturatzean ezartzen du.

Emakume langileen egoera gutxietsia, diskriminatua eta prekariora soldatapeko lana bezain zaharra da. Beste aldetik, kontuan izan behar dugu egoera honen erantzulea kapitala bada ere, ezin dugula ahaztu gizonezko langileek eta sindikalgiak jokatu duten paperaren emakume langileen diskriminazio eta prekarizazioa iraunarazten.

## **2. Emakumeen prekarietatea eta bere eragileak**

### 2.1. Emakumeen prekarietatea nola definitu?

Emakumeak ez dira hartzen eskubidezko subjektutzat babes sozial propio eta autonomia ekonomikoa izateko. Emakumeen prekarietateak osagai politiko, sozial eta ekonomikoa ditu. Jendartea politikoki antolatuta dago, emakumeak sozial eta ekonomikoki gizonezkoen menpean egon daitezten. Planteamendu honetatik askatzen diren emakumeak gutxiengo dira (Euskal Herrian, 2002ko lehen seihilekoan, emakumeen biztanleria aktiboa %43,1 izan da). Izan ere, emakume gehienek dituzten prestazio sozialak eratorriak dira (senarra eta aitarengandik) eta duten babes ekonomikoa senarraren jubilazioari lotuta dago.

Beraz, lan munduan dugun paperaren arabera, emakumeen prekarietatea, besteak beste, bi ataletan bereiz daiteke:

-Ekonomia formalatik kanpo egonik, prestazio propioerik jasotzeko eskubiderik ez dutenak. Kasu gehienetan, prekarietatea ezkutuan dago, familia egituraren baitan, senar-aitarekiko menpekotasun egoeran estalia (Euskal Herrian emakumeen biztanleria ez aktiboa %57). Hala ere, familiaren egituraren aldaketa dela eta, emakumeak bitarteko ekonomikorik gabe eta, zenbait kasutan, haurren ardurekin gelditzen dira. Esklusio egoera honek sortzen duen prekarietate egoera larriaren aurrean lan ezkutuan (eskubiderik gabekoa) jardutea izan ohi da irtenbide bakarra. Horretaz gain, alargunen egoera ere azpimarratzekoa da. Gehienek jubilazio propioaren ordean, senararengandik eratorritako pentsioa jasotzen dute. Haien diru sarrera lanbideen arteko gutxiengo soldata baino gutxiago da. Pobreziaren feminizazio prozesua parametro hauen arabera uler daiteke. EAEn oinarriko errenta eta Nafarroan soldata soziala jasotzen dituztenen gehiengo nabarmena emakumeek osatzen dute (Ipar Euskal Herriko daturik ez dugu).

-Ekonomia formalean erregistratzen direnek, alegia, lan merkatu arautuan jarduten saiatzen direnek, sexu-genero mota guztietako bazterkeriekin topo egiten dute.

Lehenik eta behin, langabezia; lanean sartuz gero, lanbideen eta lanpostuen segregaziotik hasita, lan baldintza eta kontrataziorik txarrenak: denbora zati baterakoak, behin behinekoak eta kontraturik eza. Horretaz gain, etxeko lana eta familia arduraren gainzama eta sexu jazarpena ere baditugu.

Pobreziaren feminizazioak eta emakume langileen lanaren prekarietateak gero eta lotura handiagoa duten fenomenoak dira. Azken ikerketek agerian uzten dutenez, emakumezkoen pobrezia prozesua aurrera doa. Izan ere, menpekotasun ekonomikoa eta langabezia ezezik, emakumeen pobretzearen beste eragile esanguratsu bat emakumeei bideratutako azpienplegua da (denbora zati baterako kontratazioa...)

## 2.2 Emakumeen lan prekarietatearen eragileak

-Langabezia. Gaur egun, Euskal Herrian, emakumeena %13,1 den bitartean, gizonezkoena %5,2 da

-Lanbide eta lanpostuen segregazioa generoaren arabera. Alde batetik, feminizatuei (emakumetuei) lan baldintza txarragoak atxikitzen zaizkie. Beste aldetik, zenbait sektore eta lanpostutan emakumeok sartzerik ez dugu, ia ez gaude.

-Aldi baterako kontratazioa, kontraturik eza eta denbora zati baterako kontratazioa

-Lan baldintza diskriminatzaileak:

- >soldata baxuagoak (gizonezkoena baino %30, besteak beste)
- >prestakuntza eta promoziorako zailtasunak (emakumezkoak kategoria baxuenetan daude)
- >lan osasunak ez du emakumezkoen berezotasuna aintzat hartzen
- >sexu jazarpena
- >emakumezkoen eredu estereotipatuari egotzitako exigentziak: janzkera, jarrerak, apainketa...
- >etxeko lan eta arduren zama gehitzen da. Lanaldi bikoitza
- >kaleratuak izateko lehentasuna

## **3.Emakume langileen kolektiboa eta azpi kolektiboak**

Prekarietatea jasaten duten jendarte kolektiboen artean emakumeek talderik handiena osatzen dute. Baieztapen honen oinarria argi eta garbi agertzen da baldin eta bazterkerian eta langabezian daudenei ezezik, kontraturik gabe, aldi baterako eta denbora zati baterako kontratua dutenen pertsona multzoei ere begiratzen badiegu. Eta hau, kontratu egoerari begira soilik aztertuz, hau da, gainontzeko lan baldintzak kontuan hartu gabe.

Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar dugu emakume langileen kolektiboa ez dela homogeneoa eta zenbait aldagairen arabera, prekarietatea berebiziko larritasunez jasaten duten azpitalde anitz dagoela, besteak beste: emakume gazteak, haurren ardurak dituztenak, pentsiodunak, etorkinak...

Gazteen kasua azpimarratu nahi dugu, hauen egoerari asaldagarri baiteritzogu. Izan ere, 2002ko 2. hiruhilekoari begiratuz gero, EAEn (Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko

daturik ez dugu baina egoera antzekoa dela zalantzarik ez dugu) kontraturik gabe lanean, hau da, lan egoerarik prekarioenean, aritu diren nesken kopurua %14,3 den bitartean, mutilen kopurua %1,8 da.

Neskek prestakuntza maila handiagoa izan ohi duten arren (datuek horrela agertzen dute) enpresaburuek ez dituzte kontratatzen. Beraz, betidanik egon den jarrera baztertzaileri eusten diote arazorik gabe. Oraingoan ezezik, etorkizunera begira, aldaketak eragiteko, errealitate larri honek izango dituen ondorioak, derrigorrez, aztertu behar ditugu.

Emakume etorkinen egoera ere aintzat hartzekoa da. Gehienetan etorkinei buruz hitz egiten denean gizonetzko etorkinetan pentsatzen da, hau da gizon etorkinen lan arazoetan eta lan bazterkerian. Emakumeak aipatu ere ez dira egiten, gure herrian gero eta gehiago izan arren eta gizonetzkoek dituzten arazoei emakume izatearena gehitu behar zaien arren. Emakume etorkinek lanik gogorren, prekarioen eta zigortuenetan dihardute. Horien artean, etxe langileak egun osoko lanaldiarekin eta prostituzioa ditugu. Jasaten dituzten eskubideen ukazioari eta erabateko esplotazioari aurre egiteko sindikalgintzak ez du behar bezalako erantzun tresnak garatu; alde batetik, emakume etorkinak gizonetzko etorkinen errealitatearen baitan ezkurturik gelditu direlako eta bestetik, beraien lan jarduera prekario nagusietara sindikalgintzak nekez heltzen delako.

#### **4. Lanbideen eta kategorien feminizatzea eta prekarizatzea**

Arestian esan bezala, emakumeekiko lan bazterkeriak, hasiera hasieratik, emakumeen sarbidea lan merkatuan bereizi egiten du. Segregazio horizontala ezarriz, emakumeak sektore eta lanbide zehatz murrizetan kokatzen dira. Aitzitik, gizonetzko langileek lanbideen eta kategorien aukera handiagoa eta zabalagoa izan ohi dute. Ez da kasualitatea zerbitzu sektorearen azpi sektore anitzetan emakumeak gehiengoa izatea, besteak beste, administrazio zerbitzuetan, irakaskuntzan, osasungintzan, etxe lanetan, merkataritzan, jostungintzan..., baita ehungintzan eta kontserbagintzan ere. Guzti hauek (eta aipatzen ez ditugun beste zenbaitzuetan) emakumei atxiki zaigun lan ez aitortuarekin lotzen dira, alegia, etxe eta bizikideen bizi beharren asetzea xedea duten lan jarduerekin.

Sexu-genero markak eremu pribatua (etxea) eta publikoaren (lan merkatua) artean ezartzen duen lan banaketa emakumeok gainditzen dugunean, eta eremu pribatuan egiten diren zenbait lan merkaturatzen direnean, (gehienetan merkatuaren interesak agindurik) sexu-genero banaketak sexu-genero lan bazterkeriak ondorioztatzen dituela argi eta garbi agertzen da. Lan jardueren balio ekonomiko eta sozial baxuagoa, kontratazio eta lan baldintza txarragoak, soldata txikiagoak... Lanbideen eta sektoreen emakumetzea prekarizatze prozesua hedatzeko erabili du eta erabiltzen ari da kapitala. Kapitalismo neoliberalaren merkatu globalarentzat zerbitzuak eta pertsonen eskubideak ez daude loturik. Ongizate estatuaren helburua erabat baztertu eta zerbitzuak saldu eta erosten dira kontsumokeria basatia bultzatzearekin batera.

Testuinguru honetan aztertu behar dugu emakume langileen papera eta gure bizi kalitatearen bilakaera.

#### **5.Emakume langileen lan osasuna**

Emakume langileen kolektiboak ezin dira soilik ekonomia formalean dihardutenen ikuspuntutik aztertu, gizonezkoekin gertatzen den bezala. Hauxe da gure lehenengo oztopoa emakumeen lan osasuna aztertzeko eta jorratzeko. Emakume langileen gehiengo ekonomia formaletik kanpoko lanetan dihardute: soldatarik gabe etxeko lanean edo soldatapeko lan ezkutu anitzetan: etxe langileak, pertsonen zaintzan, ostalaritzan, prostituzioan...

Nola aztertu, aintzat hartu, emakume langile hauen lan osasuna, beren osasun zaintza eta prebentzioa langile izaera ere ez baitzaie ematen?

Ekonomia formalean ari direnen kasuan, (nolabait esateko kontuan hartzen hasi direnen kasuan) ez da aintzat hartzen emakumeen espezifikotasun biologikoa, ez funtzio biologiko erreproduktiboaren zikloak, ez eta jendarteratzean eta laneratzean genero-sexu desberdintasunek eragiten dituzten ondorioak. Langileen prototipoa gizonezko langilea da. Gizonezkoen eskubideak, beharrak, arazoak dira aintzat hartzen direnak eta orokorrak egiten direnak, emakumezko langileen beharrak ikusi gabe. Lan osasunean, emakume kolektibo honekin, alegia, ekonomia formalean dihardutenekin, zerbait egiten hasi bada ere (gaurko gaia dugu), oraindik, ez da era sistematizatuaz lantzen. Hala ere, azpimarratzekoa da sindikatuaren egiten ari den lana.

## **6. Emakumezkoen prekarietateari aurre egitea**

### 6.1 Emakumezkoen prekarietate espezifikoa agerian jartzea

Euskal Herrian, emakumezkoek duten jendarte eta lan babesaren aurrean azterketa objektiboak egin ditzatela exijitu behar diegu erakundeei, eragile sozial eta sindikalei eta, noski, gure sindikatuari. Azterketa orokorrek genero ikuspuntua barneratua ez badute, errealitatea ezkutatu ezezik, distortsionatu ere egiten dute eta era horretaz, ikuspegi faltsu, manipulatu eta sistemaren (kapitalista eta patriarkala dela ezin ahaztu) iraupen interesei egokituta proiektatzen dute. Beraz, lehenik eta behin, errealitatea ezagutzeko datuak eskuratu beharra dugu eta argi dago, tamalez, ez dela gauza erraza.

Aipatu gabezi honi herri bezala lan egiteko dugun arazoa gehitu behar zaio. Euskal Herriaren lurraldean bizi eta lan egiten dugun emakumeon errealitatea ezagutzeko ditugun oztopoa mahai gainean jarri behar dugu irtenbidea irudikatzen joateko. Euskal Herriak bere estatistika azterketak behar ditu.

### 6.2 Ekintza Sindikalak bere osotasunean genero aldagaia barneratzea

Prekarietate arazo global eta espezifikoa gainditzeko estrategia global eta espezifikoa eraman behar ditugu aurrera. Beste modu batez esanda, bai, Kapital Neoliberalaren mundializazioak (globalizazioak) ondorioztatzen duen lan harreman eta bizi baldintzen prekarizatze prozesua orokor estrukturalari, bai prekarietateak jotako kolektibo zehatzei irtenbidea emateko, estrategia globala ezezik, espezifikoa ere gauzatu behar ditugu. Bi ikuspegi hauek (globala + espezifikoa) elkar osatu behar dute ezinbestez. Jakina da, sindikatuok, oro har, zailtasunak ditugula emakumezkoek jasaten dituzten prekarietate egoera anitzei (kontratazioan, lan kategorietan, soldatetan, lan osasunean...) aurre egiteko; lehenik eta behin, emakumezkoek jasaten dugun berezko arazoaren aurrean sindikalgintza itsu izan delako, zenbaitetan konplize papera ere jokaturik. Bigarrenez, eta aurrekoaren ondorioz, sistemak eta enpresariak emakumeen prekarizatzea gauzatzeko erabili ohi dituzten bitartekoen aurka estrategia sindikalik garatu ez dugulako. Horixe da, zalantzarik gabe, egin beharreko hausnarketa eta autokritika,

konponbideak jartzen hasteko. Izan ere, arreta berezia jarri ezean, ohiko inertziak arazorik ez ikustera eramaten gaitu.

Sindikatuan esparru konfederalean, hots, orokorrean finkatzen diren lan ildoak eraginkorrak izango dira, baldin eta, gure egituretan, lurralde eta sektore egituretan, nola lantokietan bertan garatzen den lanarekin uztartzen badira. Ez du inolako justifikaziorik sindikatuaren egituraren bakar batean ere emakumeen bazterkeriaz eta prekaritateaz esku hartze sindikalik ez plangintzatzea.

Negoiazio kolektiboari dagokionez, behin eta berriz agertzen dugunez, beharrezkoa da enpresen barne egoera eta jokabideak ezagutzea: emakumeen kontratazioa, lanpostuak, soldata, lan baldintzak, lan osasuna... Ea gizonezkoen eta emakumezkoen aukerak berdinak diren eta desberdinak badira (ziurrenik bai) esku hartzeko plana burutu. Hau aurrera ateratzeko sail sindikalen lana, konpromisoa nahitaezkoa da.

Erakundeen esparruari begiratuz gero, Euskal Herria preso dago espainiar eta frantziar estatuen legediez eta araudiez. Ez dugu ahalmenik nazio ikuspuntuko lan politika gauzatzeko, ez eta, beraz, Euskal Herriko emakumeen egoerari zuzendutako estrategia integrala, eraginkorra aurrera eramateko. Hauxe dugu aspaldiko borroka.

Emakumeen lan baldintza duinak eta ez diskriminatzaileak, alegia, prekarioak izan ez daitezen lan egin beharra dugu, beti ere gure helburua Euskal Herria dela pentsatuz, euskal jendarte berri, justu, libre, solidarioa eta ez sexista eraikitzea.